

IX. LEGEGINTZALDIA
2015-2019 LEGEALDIA
UXUE BARKOS BERRUEZOren
INBESTIDURA-HITZALDIA
(GEROA BAI)

FUNTZIO PUBLIKOA

Eta inbestidura honi zentzua ematen dion akordio programatikoaren azalpenari amaiera emateko, Funtzio Publikoa, Justizia eta Herrizaingoa aipatu nahi ditut.

XXI. mendeko gizartearen bereizgarria aldatzeko daukan dinamismo izugarria da. Segurtasun osoz, denboraren eta espazioaren ekuazioa da egungo aldaketaren faktore nagusia: zerbitzu publikoek parametro horiek aintzat hartzen ez badituzte, errealitateari bizkar emanez bizi direla esan nahi du. Gure administrazioa koordinatu horietara egokitu behar da, eta, horretarako, Funtzio Publikoa berriz definitzea eta Foru Administrazioa berriz dimentsionatzea proposatu dugu.

Gure tresna administratiboak egunean jarri behar ditugu, eta, halaber, gure funtzionarioen talentuari eta adimenari ahalik eta etekinik handiena atera behar diegu.

Justizia eta Herrizaingo sailetan, nahikotasun finantzarioaren alorrean ahaleginak egingo ditugu, eta, bestalde, jakinarazi behar dugu bi gai horietan egin gabe geratu diren transferentziak aldarrikatzeko lan egingo dugula. Besteak beste, Nafarroak bere Hobekuntza Legean jasota daukan trafikoko eskumena, aurrez aipatu diren beste batzuekin batera egonean dagoena...

Eta, amaitzeko, guztiok hausnarketa txiki bat egin dezagula nahiko nuke, Lehendakaritza, Funtzio publikoa, Justizia eta Herrizaingo Sailetako diru-zorroaren ardura Maria Jose Beaumont hautagaiari emateko iragarpenaren aurrean jasotako kritikengatik.

Inolako oinarririk ez daukaten akusazio larriak egin dira, eta gertatutakoen manipulazio gogorrek ere bai.

Hasteko, Euskalerrria Bildu alderdi politikoak Geroa Bai alderdiak proposatutako gobernu-eredua onartu zuen, eta argi geratu da zuzenduko dudana Gobernu hau ez dela partiduen arteko koalizio-eredua, eta erronkari aurre egiteko gaitasun teknikoa daukaten profilek osatuko dutela, egoitza honetan legebiltzarkideen gehiengoa eratzen duten sentsibilitate politiko ezberdinei arreta emanez ez bairik gabe.

Horrenbestez: gezur borobila da Gobernu eratu duten sailburuek diziplina politiko baten aginduz beteko dutela kargua.

Eta berriz diot: Aldaketaren Gobernua ez da lautarikoa, ez Geroa Bai, ez Bildu, ez Podemos ezta I-E alderdiarena ere...Nafar guztion Gobernua da, bakarra, eta parlamentuko botoei erantzuten die bakar-bakarrik.

Bigarrenik, pertsona baten ohorea zalantzan jartzea —kasu honetan Beaumont andrearena— funtzio horretarako gomendatu duenarengatik soilik, haren ibilbide pertsonala eta profesionala aintzat hartu gabe, ONARTEZINA da, eta defendatuko dudan demokrazia honetan horrelako jarrerak desterratzea da nire asmoa.